

Urtxalle

Pilotari bohemio bat boteretsuenen artean

XIX. mende Erdialdeko argazki erakusketa ikusgai izan da duela gutxi Londresen. Munduko lehenengo erretratuen artean ageri dira garaiko politikari, artista, errege, erregina eta enperadore ospetsuak. Eta zesta eskuan duela, baita pilotari oiartzuar bat ere: *Urtxalle*. Nor zen pertsonaia berezi hau?

MIKEL GARCIA

SEKULAKO EZUSTEKOA hartu zuen Juantxo Egaña argazkilari donostiarrak, 1850eko hamarkada inguruko argazkiz osatutako bilduma pribatuaren erakusketa bisitatu zuenean Londresen. Munduan kontserbatzen diren irudi zaharrenen artean, garaiko pertsonaia garrantzitsuenen artean, pilotari euskaldun bat zegoen. Ondoren ezagutu zuen bere izena: Manuel Francisco Lekuona *Urtxalle* –Urtxalle izeneko etxean jaio zen, Oiartzunen, eta hortik ezizena–.

1851n pilota desafioa jokatu zen Biarritzen, Ipar Euskal Herriko lau pilotari hiru oiartzuarren aurka, errebotean. Iparraldekoen aburuz pilotarik onena Gaskonian jokatzen zen eta gaskoi bat ere bazuten taldean, baina hala ere oiartzuarrek –tartean *Urtxalle*– irabazi zuten, gutxiago izan arren. Napoleon III.a enperadorearen aurrean lortutako garaipen arrakastatsuen oihartzuna azkar zabaldu zen nazioartean, eta “Biarritzeko Heroiak” izenarekin ospetsu egin ziren, *Urtxalle* batik bat, onena bera baitzen. Iparraldean oporrak igaro ohi zituen Londresko argazkilari batek, fama hura ikusita, argazkia atera zion 1955 inguruan. Horra imajinak Ingalaterrara egindako bidaiaren zergatia.

Dena den, pilotaria baino askoz gehiago zen *Urtxalle*. 1828an jaioa, *showman* alaiaren zena: herri guztietako festetarako kontratatzen zuten, ez



bakarrik pilota partidarako, ondoren gitarra hartu eta bertsotan giro umoretsua jartzen zuelako baizik. Jokatzen zituen norgehiagokak ere ez ziren arruntak, beti handicap bat jartzen zion bere buruari, ikuskizuna sortu eta jendea erakartzeko: lau pilotari zaldi gainean oinezko baten kontra, sagardo botila edo zartaginarekin eskuz jokatzen zuenaren aurka, beste baten bizkar gainera igota... Eta ondoren, desafioetan irabazitako dirua gainontzekoak gonbidatzen xahutzen zuen, herriko ostatuan. Plaza gizona zen *Urtxalle*, artista, bohemioa, mundu guztia bereganatzen duen horietakoa. Izatekotan, guztiz konforme ez zuena familia zen, gonbidapenak medio sosik gabe itzultzen baitzen etxera. Konfiteria bazuen etxe azpian, baina lanean ere oso eskuzabala zen eta askotan gozokiak oparitu egiten zituen.



LANDER ARBELAIZ

Urtxalleren etxea zenaren aurrean, Joxe Mari Mitxelena eta bere aita Manolo. Joxe Marik eman digu pilotariaren berri. Ezkerreko orrian, Londresko bildumak jasotzen zuten Urtxalleren irudia.

Liberala eta Elizaren ez oso lagun, pilotari eta bertsolari izateaz gain politikoki gizon inplikatu zen oiartzuarra. Ezaugarri horiek guztiak biltzen dituen pasadizoa heldutasun garaikoa dugu, Erreterian bizi zenekoa. Oiartzunen komentu berria egin zutela eta ezker-hormadun frontoia zuela entzun zuten *Urtxallek*. Ezker-horma zuten lehenengoetakoa zen, ordura arte plaza libreko joko zuzena izan baitzen nagusi. Garai hartan, eztabaida bizia izan zen ezkerparetaren aldeko eta aurkakoen artean. Bertsolaria plaza librearen aldekoa zen, eta ezkerparetaren berri izan zuenean Erreteriatik Oiartzuna oinez joan zen, kantxa berria ikuskatzera. Bueltan, ondorengo bertsok bota zituen, arretaz entzuten zuten bizilagunen aurrean:

*Bi lagun joan gerade
gaur nire herrira,
geren asmo osoaz
Aldapa Berrira.
Gizon bat irten zaigu
atean erdira
esanez: "Ez da libre
praileak ai dira".*

*Gizonak zahartu eta
hau al du merezi?
Nere herrian ere
kanpoan naute utzi.
Azkenian guztia
ez nian ikusi,
azkenik plazan ere
praileak nagusi.*

Agur Jaunaken sortzaile

Hori ez du, dena den, pasadizo ezagunena. *Agur Jaunak* abesti ospetsuaren jatorriaz hiru bertsio daude, eta denetan *Urtxalle* dago tartean: batzuek diote Iparraldean entzun eta Hegoaldera ekarri zuela; beste batzuen esanetan Donibane Lohizunen jokaturako desafio batean beste pilotari batek berari kantatu zion; eta hirugarren bertsioari kasu eginez artista oiartzuarrak berak kantatu zuen lehen aldiz. Azken bertsio horren aldekoa da Joxe Mari Mitxelena Oiartzungo pilota ikertzailea, frogatzen duten dokumenturik ez izan arren, belaualdiz belaualdiz transmittitutako kontakizun hau delako datu gehien ematen dituen. Horren arabera, 1851n, Maulen elkarri desafio bota zioten *Urtxallek* eta Mauleko Errota-

ria garaiko pilotari ezagunak –desafioak buruz burukoak izaten ziren, eta gero bakoitzak bere taldea osatzen zuen–. Orduan ere, Iparraldeko lau Oiartzungo hiruren aurka lehiatu ziren, eta orduan ere oiartzuarrak atera ziren garaile.

Jokalari oiartzuarrak etxera bueltatu ziren, baina gure artistak segituan hartu zuen Mauleko ostaturako bidea. Herritarrak gonbidatu eta gitarrarekin giroa berotu zuen. Erretiratzeke orduan, Mauleko Errotariari bota omen zion kanta famatua, jatorrizko hitzak denborarekin apur bat aldatu badira ere:

*Agur Jauna,
(aurkariari zuzenduz, Mauleko Errotariari)
Jaunak agur,
(ostatuko gainontzekoei)
Agur t' erdi.
Denak Jainkoak
iñak gire
("iñak" Oiartzunen esan ohi den moduan,
"gire" zuberotarrez)
zuek eta bai ni ere.*

(*Urtxalle* Jainkoa zela esan ohi zen, pilotan baldintza beretan beti irabazi egiten zuelako. Bera ere, gainontzekoen moduan, hezur eta haragizkoa zela esan nahi zuen horrela)

*Agur, Jaunak, Agur
Agur t' erdi bemen gire.*

Iparragirrearen garaikide

Garai berekoa dugu Joxe Mari Iparragirre, beti gitarra alboan eskola ona eta musika zerbitzen zuen hura. Hain pertsonaia antzekoak izanik, elkar ezagutu zutela pentsatzea ez da harrizkoa. Ez da halakorik jasota geratu, baina Zumarragan eta Urretxun hainbatetan jokatu zuten *Urtxallek* pilotan, eta segur aski topo egingo zutela uste du Mitxelenak.

Festarik festa, desafioz desafio ibili ostean, politika medio 51 urterekin Oiartzun karlista utzi eta Erreteria liberalera joan zen bizitzera. Azken urteak han eman zituen, emazte eta semearekin, posta banatzen. Bizilagunak zain egoten ziren, eskutitzak banatu ondoren egunean zehar gertaturiko bitxikeriak bertsotan nola jasotzen zituen entzuteko.

Egun ordea, herriak zeharo ahaztu du bote-retsuenekin batera erretratatu zuten gizona. Zergatik iritsi da gaurdaino Iparragirre eta *Urtxalle* ez? "Iparragirrek Gernikako Arbolari abestu zion, eta berak kantatu ziola dakigu gainera. *Agur Jaunak Urtxallere*na dela frogatu ahal izan balitz, agian...". dio Mitxelenak. Kontuak kontu, aintzat hartzeko moduko aleak eman zituen pilotari bohemioren bizitzak. ■

www.argaia.com/bideoak
helbidean, *Urtxallez* Joxe Mari Mitxelenari
egindako elkarrizketaren bideoa.